

Baztandar ospetsuak

Oraingoan baztandar Yaun ospetsu baten bizia agertu behar dut, Aita Antonio Goiiena Yaunaren liburitik hartua. Liburu honetan Baztanen sortu diren Yaun Agurgarrien kondaira agertzen du Goiiena Yaunak, denen bizitza xehetasun guzietan agertzen duela. Hemen erakutsiko dugu Arizkongo Damaso Legaz Laurentzena, Arizkunen sortua 1831 garren urtean Abenduaren 11-ean. Apeza zen eta gazte denboran, hiru urtez latin ikasten aritu zen bere herritik atera gabe. Gero «Beka» bat eman zioten apez ikastaroak egiteko Iruñako San Juan Bautista Ikastetxean. Apez egin zen 1863 urtean Maiatzaren 30-ean. Gero Teologia Doktoradua ere egin zuen Valenziako Seminarioan. Legaz Yaunak berehala erakutsi zuen bere iakitzea eta Iruñako Seminarioan bazituen kargu aunitz, hoiaren artean: Filosofia, Teologia, Idazki Sakratuak, Sekretaritzak eta Erretore Ordezko ere, 1869-tik 1902 urtetan. Kargu gehiago ere erdietsi zituen, hoiaren artean Euskara Elkartearena, Iruñan sortua 1877-an. Euskal Katedra hau Nafarroako Diputazioak egin zuen eta Legaz Yauna izendatu zuten Irakasle Nagusi bezala. Hainbertze lan eginik bere bizi guzian Goi-Mallako Ikaskuntze-

tan. Iruñan Hil zen 1902-ko Azaroaren 17-an.

Erraten zuten Legaz Yauna izan da Baztanen sortu den Jaun haundienetako bat, Irakasle bezala guzien gañekoa, hizlari bezala iakintsua eta euskara arloan garai hartan hobereenetakoa nafararren artean.

Kampion Yaunak ba omen zuen Kondaira bat erderaz egina «El Batzarre» izenburua zeukala eta Damaso Legaz Yaunak «El Batzarre» delako lan hori euskarara itzuli zuen, ongi moldaturik.

Aita Gaspar Asteteren «Kristau Ikasbidea» ere erderatik euskarara itzuli zuen 1880 garren urtean.

Lan gehiago ere badauzka egina, hoiaren artean «Orreaga» kondaira baztandar euskarara itzulia. Legaz yaunaren lan hau ikusi daiteke «La Gran Enciclopedia Vasca» liburuan bosgarren alean dakarra lan hori eta bertze 20 idazleen lana ere «Orreaga»-ri buruz, bakotzak bere herriko euskalkian idatzirik, Legaz yaunak egin zuen bezala.

Ikusten dugunez Baztanek eman ditu ospe handiko gizonak eta ez da hain agor eta antzu zenbaitek uste duten bezala. Ohore eta gorespen Yaun Agurgarri hoiari.

M. Izeta

Egun on, Karmen Alborch. Badiñet iretzat ere zer esanik

Mundo zabaleko edozein Jaur-laritzako edozein ministrori zor zaioneraspena urratu gabe, badiñet, Karmele, iri esatekorik zerbait. Ministroaiz. PSOE-ren indarrari eta Jaingoaren pazientziari eskerrak, ministroaiz Madrid'ko Jaur-laritzan. Eta, arraioa!, zer izango'ta, Kulturako Ministroaren babesle, zaindaria eta andreta jabe. Ez, dun ori noski gaurdiko auztaren eztula!

Ez adi asarretu. Adiskidetasun zintzoa irekin itzezin nai niken da. —Eskerrikasko, Karmen txu. Entzun eidan ba, abegi onez: Ik ez dunezagutuko seguruaski On Antonio Oyarzabal, Monseñor Oyarzabal, Obiedo'ko Kanonigu eta idazle bikaina, eta ez dun irakurri izengo Jaun orrek gureizparringietako batean argitaratu-berria din idazlan bat.

—Ez? Ez dakin ba, neska, zer galdu dun. Kulturari-buruzko ire eginkizunetan, berdiñik ez gabeko aolkulari ta laguna izango bait ueke On Antonio.

—Ez dun neri eskerrak ematen ibilli bearrik, Karmen txu, munduko borondaterik onenaz aolkatu (akontsejatu) diñet On Antonio-ren laguntza'ta. Ainzuzen idazlan ortan numero edo zenbaki batzuk eman dizkin ezagutuzera. Ona zenbaki oiek: 4.000 milloi. 600 milloi. 575 milloi. Azkeneko zenbaki au ez dun ezagutuko, baña beste biak ezagutu bear ditun.

—Ez aizela oroitzen? Ireak ditun ba! Baña ez adi larritu. Nik prexkatuko'iñet oroimena'ta. On Antonio'k emandako zenbaki oiek aizatuz, eta aren bide beretik erabiliz, iru edo lau egi borobil bota nai dizkiñet aurpegira. Estali'zan ire musu eder ori, iru edo lau egi borobiloiak anitz gogorrek direlako min emango diñe-ta.

—Goazen, neska, aurreneko zenbakira: Lau mila milloi. Oiek ditunik, 2 antzoki edo teatro, bi bikarrik, Madrid'ko eta Bartzelona'ko opera-antzokiak txukuntzeko



ik emandako Ditu-apurra.

—Ikusten dun, nola arrotu dizkiñaten nik oroimenaren gañeko autsak?. Onoizkero ezaguna egiten zain seguruaski bigarren zenbakia: seireun milloi. Arriaren gaitzak jo-ta, egunetik egunera egoera larriagoan aurkitzen diren katedral eta elizak salbatzeko ik Elizari eman dion dirutza izugarria. Bañan... ik... lotsarik, bai al dun, Karmen txu? Bi antzokirako 4.000.000.000 (4 milla milloi) bear ba'dira?, 600 milloi eun katedral eta ainbeste eliz eriotzetik salbatzeko naikoak iduritzenal zaizkin? Jaur-laritzara sartu ezkerro, zburua nasi ote zain, Karmele?

—Ez adi asarretu. Nik ez diñet

ukatuko bi antzoki oiek, arte edo ertiaren aldetik baliozkoak diranik. Baña, bai, esango diñet, bi antzoki oiek, eta, -ertiaren aldetik balio gutxiakok direlako- Españi'ko antzoki danak beño balio geiagokoa dela Españi'ko edozein katedral bakar bat.

—Katedralak Elizarenak direla eta Estaduak ez baña Elizak zaindu bear dizkiñela? Esan dun, Karmen txu, ori esatean, astakeri galanta! Estaduaren eginkizuna, jito-talde batena bezala, soilki bere ondasunak zaintzea ta besteranak lapurtzea al dun ba? Barka bezaidate jitoek, oiek askoz jende zintzoagok ditun-da.

—Ez, Karmele, ez. Ez diñet nere itzik jango. Lapurreta bikoitza dun ik egiña. Aurrenekoa, ik emandako diru ori gurea delako: Gure zerga edo kontribuzioko dirua, ta gurea izanik, gure diru orren banaketa gure naumenaren aurka egin dunelako. Lapurreta dun, Karmen txu, dirua bere jabearen borondatearen aurka gastatzea. Eta, bigarrena, Elizari, bere katedral eta eliz guxtiak zaintzeko dirua: Estaduak, Mendizabal minisjtroaren bitartez, lapurtu ziolako, eta ik Elizari berea din diru orikatzean, Medizabal'en bidetik abillelako. Nola ausartzen ain i, orain, Elizari zun diru guztia kendu zion Estadu lapurraren ize-nean, Eliza zearo lapurtu orri, lot-saren apurrik ere gabe «or konpon adi» esatera.

Azkeneko zenbakia, Karmen txu, 575 (ia-ia 600) milloiko diru ori, Naparroa'ko Jaur-laritzak katedral bakar bat txukuntzen gastatu din dirua dun. Eta beste orrenbeste ari dun gastatzen Gipuzkoa'ko Diputazioa Gipuzkoa'ko elizak konpontzen. Euskaldunok ere bagaitun ba, Karmele, egin bear dena nola egin bear den erakusteko gauza!

—Zer dion? Egiña egiñik dagoe-la? Orixe esan ziñen Pilatos'ek ere, Jesus gurutzatu zuenean!

Latiegi'tar Bixente

Kultur zikloa 94. Larraun

Lekunberri: gaur larunbata, 10 gaueko 8, tan, musika saioa, bittor Aiape. Gaueko 10, etan musika jaialdia nahi ta nahi ez.

Datorren larunbata, 17, arratsaldeko 7, etan, kontu contalaria ipuinak, leiendak; kontu zaharrak... Pello Añorga. Mitxasenean Kultu Etxean.

Berri ona

Itzak eder, ekintzak lander

«Zer egin bear dugu?» (Lk, 3, 10-18)

BEIN baiño geiagotan erran dugu itza ekintza biurtu bear dela; ez du sinisgarritasunik izango bestela sekula santan. Eta gaurko gizon-emakumei atsegin zaie itzegitea. Agintariei, politikoei, eliz-gizon eta emakumei... itzak atsegin zaizkigu; ez ainbeste ekintzak. Eta mundua aspertu samarra aurkitzen da itz-jario ederrez.

Joan-ek ematen digu lezioa ederra, benetan! Ekintzak guztiz bearezkoak dira gure fedeak sinisgarritasuna izan dezan. Zer egin bear dugu? «Bi soiñeko dituenak, eman bezaio bat, ez duenari». Solidaritza.

Solidaritza, ordea, bi modutara ulertu edo bizi daiteke: bat, solidaritza motza deiturikoa, eta bi, kristau solidaritza izango litzake.

Solidaritza motzak ez du ekintzarik. Itz ederretan gelditzen da guztia. % 0,7 Gobernuei emateko eskatzen zaie, zer eskatzen zaie? Sobra dutenetik ematea, eta kito! Ori solidaritza motza, eskasa, murrizta da. Solidaritza ez da laguntza soilla ematea.

Kristau solidaritza, ordea, beste neurriak ditu. Solidaritza mota onek guztiak berdiñak direla pentsatzen du edota, berdiñak izango geranaren elburuak ditu oiñarri. «Nik zuri, zuk neri». Mailla onetako solidaritza, pobreak, zapalduak, gaisoak, elbarriak... onartzea eskatzen du.

Zer egin bear dugu? Solidarioak izan. Zer da, ordea, solidaritza?

- Urkoaren sufrimenari entzungor ez egitea.
- Urkoaren sufrimena nere egin eta arekin sufritzea.
- Zapalduen eta beartsuen eskubideak zaintzea eta errespetatzea.
- Pertsona oro duintasunez bizi dadin lan egitea.
- Irrifarraren eta alaitasunaren mezulari izatea.
- Maitasunagatik bizia eskaintzeko prest egotea...

Bizi dugun abendualdia izango bada, eta egiaz Jaungoikoa gure artera etorri dadin nai badugu, munduko eta inguruko gizon-emakume guztien egoera obetzen saiatzea eskatzen zaigu.

Jaungoikoaren zai gaude. Jaungoikoa, ordea, bizi den Norbait da. Eta bizi den Norbait salba dezake mendua, salba dezake gizakia.

Ezin daiteke, gizakiak elburu bete lortu dezan laguntzeko gizon egin zen Jaungoikoan sinestu, eta egunean baiño egunean gizona go izaten norbera ez alegindu eta gizabide aundiagoko mundua lortzeko lanik egin ez.

Ezin daiteke, gizonarentzat zuzentasunezko, askatasunezko eta maitasunezko Geroaren billa dabillen Jaungoikoan sinestu, eta, aldi berean, uruti dagoen azken ori lortzeko ezer egin ez.

Zer egin bear dugu? Ona emen gaurko galdera sakona, erantzuna eskatzen duena.

Artzalluz'tar Joxemari

Euskal Meza Lizarra'n


Lizarra iri ederrak ba dauka euskal Meza. 1971'garren urtean sortu zuen, San Juan elizan, Esteban Irigoyen Baztan'dar erretorak. Larunbatero ematen dute arratsaldeko zazpitan.

Aurten, Bazko astean joan nintzen lendabiziko aldiz. Elizan berreun gizaseme zeuden, baita gaztetxo taldea abesbatzan, aldarean Aingeru Sada apaiz gaztea. Jaialdiko giroa zegoen, errikoia, otsa beroa, anaiarteko alaitasuna, euskal atsa aundia. Jose Mari Azkona'k (amar urteko mutillak) egin zuen sarrera. Iñaki Zufiaur'ek, amabi urteko gaztetxoak Epistola irakurri zuen, garbiasko. Xabier Larramendi'tar Ruiz delako laguntzaileak zuzendu zituen erriaren eskarriak. Abesbatza, Jose Luis Lopez de Gereño'ren zuzendaritzapean ari zen abesten gartsuki.

Meza ondoren, eliz inguruan euskaraz mintzatzen entzuten zen. Lizarra'ko iriari giro berezi bat ematen dio euskal Mezak; kultura maillan nortasun sakona, indar aundiko arnasa, aspaldiko otsa ta berriz eskuratutako etxeko garra.

Gaur euskal Mezaren ardura duen Aingeru Sada apaiz euskaldun berria daukagu. Kristauikasbidea eskolan eta Institutoan euskaraz ematen ditu. Naiko lan gizon bantentzat.

Euskara ikasten izerdi ederrak atera ditu. Sortzez Dierri ibarreko



Aingeru Sada.

Iriberrin' jaio da. Erri ortan aspaldi euskara galdu zen. Iruña'n, apaiztegiaren artu zituen euskarazko aurreneko ikaskayak. Gero Larraga'ko irian, sendagilleekin jarraitu zuen. Lizarra'ra etorrita gaueskola-ra joan zen. Lazkao'n, amabortz eguneko ikaskayak, iru urtez, euskara ikasten egin ditu. Lizarra'n egunero Esteban Irigoyen'en aita ikustera ta euskarataz mintzatzeraz joaten zen. Egunero aukeratu du astia euskara ikasteko, Loiola irratia entzun eta aurren ipuiak ikasiz. Amalau urte daramazki euskal

Meza ematen; lendabizi erretorarekin batean, gero bakarrik. Orain itzaldiak errex ematen ditu. Gogoa daukat entzundako itzaldia; Santo Tomas'en sinisimenen erro-tuta, aurrera joateko artutako argia zabaltzen, erran zigun. Itza beroa dauka, euskara lasai egiten du. Aoa zabalik entzuten dio erri euskaldunak. Irriparra beti ezañetan dauka. Urtero kristauikasbideko aurreneko jaunartzeak dauzka; aurten berrogei ta lau. Lizarra'n dagon ezkeror egin ditu lau bataio euskaraz eta ezkontza bat.

Nor dugu Aingeru Sada? 1941'garren urtean jaio zen.

1963'garren urtean apaiztu zuten. Erriko iru seme egun berean sagaratu zituzten errian bertan eta gotzaia ere erri ortakoa zen, Sanz Jauna, India'n mixiolari dagona.

Apaiztu ta bereala, Larraga'ra bidali zuten. Ango gazteak euskal zaletasunarekin kutsatu zituen. Bertako euskal izenak ongi marrazten zizkien: Urnia, Burrunba, Landaza. Erriko jaietan bi asmo nagusi zituzten gazteak: zezenak eta «jota». Aurreneko «jota» euskaraz antxen egin zen. Txistulariak eta dantzariak sortu zituen Larraga'n. Azi arek jarraitzen du. Gaur berriz, Lizarra'n, Aingeru Sada apaiza itzala aundiko euskalduna dugu, nafarro berriaren langille bat, euskara maite duna.

Latxaga